

ITSASORA

Ganich Iratzeder

Jendeak

gizon	zathitan	andere
BARTOLO	:	MARITCHU
GANICHON marinel zaharra	II :I	4 sare egile
FETTE marinel pertsularia	I & II:I	bi kantari barne
ECHTEBE	I & II;II	herremha bat
berze 3 marinel	I & II:II	ostaleraren alaba
ELHAKARI BAT(déclamateur)	I =III	amatto bat kantaria
Ostalera	II :	BARTOLOREN AMA
kantari batzu	:	sare egilek egiten ahal dute
bizpa hirur laur	:	ostaleraren alaba,
	:	amatto kantaria
	:	Bartoloren Ama .

o-----o

Tokia *I*

Itsasora agert bat, eskunean marinel etche bat, uraren eta bidearen artean,
 hedagi bat, hedagiaren gainean arrainzako sareak,
 ezkerrean, ~~itsasorari buruz xatoh bat leihok xaxatyuakx.~~
 etche baten gibel aldea leihoa bat hetsia .

hastapenean

laur edo bortz marinelek kurritzen dute tokia,
 zare bat besoetan .

bizkarrean

Egun on berandu zoazte egun

marinel batek
 hurbildu baitzaiku arraina
 Bar
 denbora ederra duzue segurik
 marinel berak
 bha, ederregi naski
 berze marinel batek
 bon, bon, goazen bethi esperantzian
 eta jalgitzen direlarik kantatzen dute GOIZEAN GOIZAK
 entzuten da kantua urruntzen .

gaten da marinel gaichoa
 esperantza badauka bihotza bethea
 kanta dezagun beraz alegerantzian
 gero ethorriko baita ilhuna nabarrean (ber .

kantariak johan direlarik bartolo doa hedagiaren ondorat
 eta itsasoari behatzen du .

kantua akhabatu eta - boz batek dio

Itsasoa

zuri behatu gabe nola egon naite
 zure boz latzarekin othoi mintza zaitte
 erredazu zertako zaitudan hain maite

Isasoa

zertako bada pizten dautazu bihotza
 ez othe zare zu maiz hiltzaile bat belza
 hezurak itsapean ez othe dabilta

Itsasoa

zertako erradazu nauzu bilduratzen
 hil harrier behatuz nigarrez naiz aitzen
 begiak choraturik zaizkitzut k andatzen .

Itsasoa

zertako ur ondoan naiz ardura jarri
 gau alderat behatuz tirainen dantzeri
 zertako harroketan niz kantuz maiz ari

Itsasoa

zertako zuri beha nago choraturik
 amaren besoetan zu ezagaturik
 horrek ez du ematen holako billurik

Itsasoa

zerk du ba zure baithan choratzen gogoa
 zabal zabala zare muga gabekoa
 gogoratzen dautazu gure Jaun Goikoa

Maritchu heldu da orai ezker aldetik pitchar bat eskuan
 agur, ez zare gaur itsasorat gaki ?
 Itzultzen da Bartolo eta irriz kantuz hasten :

Bar Maritchu norat zoaz eder galantorik
 Mar Ithurrirat Bartolo nai badezu ethorri
 Bar Ithurrian zer dago ? ~~arnotcho churia ?~~

Mar arnotcho churia
 biek biek edanen dugu nai dezun guzia

Bartolo irriz
 ai zer bi garen gu
 Maritchu
 bat izan behar ginukenak
 Bar
 Bai Maritchu gaur ez bada etzi banao itsasora itsasoz itsaso
 Mar
 ez balinba
 Bar
 Hortako nago gaur hemen, nahi dut azkenean nere ametsa gozatu eta luze
 urrun itsas bururaino ibili
 Mar
 Ibili eta itho
 Bar
 beharba, baino zorionean bizirik

eskuin aldetik elgarrekin doatzilarik

Mar
Bihotz gabea

eskuin aldetik helzen da sare egile bat, gero berze biga,
edo hirur edo laur ; bakotcha bere kadira tikiarekin
harzen dituzte sareak hedatuak et lanean hasten .

lehen sare egilea ethortzean eta lanean hastean
 Ikusi ditutzue jaun errientari bezala kantu egiten ahalko zaiote
 bigarren sare egileak
 zuk errazu

lehen sare egilea hasten da kantuz sarea hartzearekin

Donibane ziburuk erdi erdian zubia
jaun errientak egiten omen du haren gainean guardia
ean ez ikusiren duen Katalin begi zuria

2° sare
 bainan ez dut uste hau egonen ~~zadon~~ zaion luze guardian
 4° sare
 etzi doa
 2° sa
 zer bihotz mina ahal duen
 3° sa
 aski du hirur kapitainek bezala untzian eremaita

I° sa zer ditutzu hirur kapitain horiek ?
 3° sa ori, ori ez duzue egundaino aditu ?
 I° sa ez, ez
 3° sa kantatzen du
 elhorri churiaren azpian
 anderia da lokartua
 arrossa bezain gorri
 diamanta bezain ederrik

kantua hautsiz pasatzen da arrain saltzale zahar bat
 bada, bada, omore ona
 I° sa
 behar ere
 I° sa denez segitua kantatzen dute
 Kattalin tutkutu Katalin arina
 arrain saltzalea hasarre
 o alferrak, goizetik kantuz ..

Bartolo irriz
 ai zer bi garen gu
 Maritchu
 bat izan behar ginukenak
 Bar
 Bai Maritchu gaur ez bada etzi banoa itsasora itsasoz itsaso
 Mar
 ez balinba
 Bar
 Hortako nago gaur hemen, nahi dut azkenean nere ametsa gozatu eta luze
 urrun itsas bururaino ibili
 Mar
 Ibili eta itho
 Bar
 beharba, baino zorionean bizirik

eskuin aldetik elgarrekin doatzilarik

Mar
Bihotz gabea

eskuin aldetik helzen da sare egile bat, gero berze biga,
edo hirur edo laur ; bakotcha bere kadira tikiarekin
harzen dituzte sareak hedatuak et lanean hasten .

lehen sare egilea ethortzean eta lanean hastean
Ikusi ditutzue jaun errientari bezala kantu egiten ahalko zaiote
bigarren sare egileak

zuk errazu

lehen sare egilea hasten da kantuz sarea hartzearekin

Donibane ziburuk erdi erdian zubia
jaun errientak egiten omen du haren gainean guardia
ean ez ikusiren duen Katalin begi zuria

2° sare
bainan ez dut uste hau egonen ~~zadon~~ zaion luze guardian
4° sare

etzi doa

2° sa
zer bihotz mina ahal duen

3° sa
aski du hirur kapitainek bezala untzian eremaitea

I° sa zer ditutzu hirur kapitain horiek ?
3° sa ori, ori ez duzue egundaino aditu ?
I° sa ez, ez
3° sa kantatzen du

3° sare
 bada, bada, ^{kan}errazu noizkoak ditutzu arrain horiek
 I° ^{Arrein}Noizkoak ? ausart zikhia mokofin alaiña
 behar ere I° ^{kanporat}doe (rideau)
 ar ^{atun freskoa}atunatun freskoa
 o alferrak,

igande aratsealde bat
 ostatu aintzin bat berdailuz aphaindua
 laur marinel, Bartolo barne musean ari
 partida bero akhabatzerat doalarik, ostatu barnetik entzuten dire kantuak

..... athea nori ideki
 lenik aitari, gero amari,
 gero anai areberi,
 azken orenean segetuan
 nere maite pilotari .

Bar kantuenartetik ...
 hordago Ganic
 kanta Bar
 mediak Gan
 dobleak

musa akhabatzen da, muslariak dire : BARTOLO.GANICHON?ESTEBE eta PETTE

Ganichon zaharra
 horra zer den gazte izaitea
 Bar
 zer nahuzu pinta bat arno pagatu eta kito .
 Pette
 ez duk ez helduden igandean pagatuko
 Bar
 ez, eta halako bat egiten daiat herrikoen uzteak
 gani
 ez ahal zaik orai bihotsa eskastuko, alo, alo bartolo, munduko itsaso
 zabalenak ikusiko dituk bazterretik bazterrarat . a, bahindaki zoin
 zoragarri den urruneko uretan, lerna eskuan, bakharrik egoitea: gainean zerua
 urrutiraino uhainak, itsasoaren zabala .
 Bar
 badakit, badakit ez baitut segur gibelerat egin gogo, nere arbasoak bezala
 nahi dut orori nagusituz leihor berrietarat abiatu

Echtebe boina kendurik kantatzen du .. ostatutik marinelak ethorzen direlarik
 bai eta ostalera bere alaba, entzuten dute portan, edo leihorik .
 nahi nitzaike lau pertzuz behar emaiten hasi
 nik ere itsasoa baitut maiz ikusi
 ez dire bazterretan guziak itsusi
 halere itsasoa duk orori nagusi

esku zartak
 Gani
 emak hor echtebe
 ostalerak leihorik
 hiri Pette emok errpostu
 Pette basoa klikarutik, chutitzen eta buru has hasten
 lagun ederki dituk bertsuak egiten
 banan portu alderat hauzenean jiten
 ez othe duk itsaso hits hori ahanzzan
 eta gora dagon mendia miresten
 lehen pertsuen ondotik bezala, irr, esku zarta,
 ederki hori, zer gizona,
 etc....

Huna adichkidia oraino lau pertsu
ez baitiot gauzati nehoiz eman kasu
laborari gehienak dituk doi bat pisu
eskualdun marinela duk aldiz dena su

Pette

nahiz holatsu dela behar den aitortu
eskuaraz ez ginian eginen gaur kantu
hik ez maite mendiak lehen ez balitu
zazpi eskual herriak garbi begiratu

Echtebe

atheraldi edo rra Pette eman duk hor,
mendiak dio egin etsaieri gogor
bainan eskual herriak duen fama aithor
aspaldian diola itsasoari zor .

ikusleak sartzen dira ostatuan .

Gani Bartoloren bizkarrean eskua

Hoa Bartolo,hoa, ez haiz urrikituko,eta gero,eremu zabalez begiak aserik
itzuliko haiz dehatsu eta dena espantu .

Bar

Bha, uz nezazu lehenik abiatzerat .

Gani

Hoa bihotzminik gabe herriz herri ibiliz ikusiko duk eskual herriaren
prezatzen itzultzean ederrago ta maiteago baitz zaik agertuko

Ganichon chutitzen da berze guziak ere,denek basoak husten dituzte
Bartolok eskuak tinkatzen ditu dener eranez

Milesker Ganichon,ez zaitut ahantziko

ani

nik ere ez .

Bar Peteri eta Echteberi

Agur lagunak,ikus arte, agur .

Ganichon,Pette eta Echtebe doatzi
Pette eta Echtebe kantuz gochoki

Nik baditut hirur tacha
batekin aski bainuke
jokolari,arno edela
lanean ez ari nahi

orduan bozak galtzen dire urunean .

denbora berean ostaleraren alabak sartzen ditu museko eta mahiko puskak
erranez Bartolori

Badira naski zu gan eta nigarrez aiko direnak

Bar

Ba othe ? (irri bortchazko batekin ...

neskak bernerat sartzearekin

Gaicho Maritchu .

urrunetik entzuten da amatto zahar bat haur baten lokararazten
amatto (heldu da gero barnerat)

Itsasoa lano dago

Baionako alderano.

nik zu zaitut

maitiago urak bere umiak baino

lo,lo,

ostatu borthan,Bartolok aditzen du ,amattoak berriz ere kantatzen
aho hetsiz

lo,lo

Bar
 ai, nik ere banitu emazte eta haurrak .

AMATTO
 ezkont zite

Bar
 ba baina, (erakustean) itsasoa

Ama
 egia da bazoala bihar ?

Bar
 bai banoa
 eta amattoa sartzen delarik itsasoa charamelatuz

Bar
 banoa itsas maitiaren ganat
 eta begiak zeruari buruz kantatzen du :

argizari ederra argi egi dazu
 bide luze batean joan beharra nuzu
 gau huntan nahi nuke maintia mintzatu
 haren ganako arte argi egidazu

bela erorzen delarik kantariek emaiten dute

Ilhun nabarra

o -----o

lehen zathiko toki bera
bela alchatzearekin kantariak emaiten dute

Jeiki jeiki etchekoak
argia da zabala ber)
itsasotik aditzen da
zilharrezko adarra
bai eta ere ikharatzen
olandresen ibarra ber)

kantua akhabatu eta Bartolo jalitzen da etchetik, soineko urdinak, eskuan
oihal beltch batean bere puskak
haren ama chaharra borthan dago

Bartolok kantatzen du
Agur nere bihotzeko
amatto maitea
lester ethorriko naiz
kotsola zaitela
Jainkoak nahi badu
ni urez juaitia
Ama zertarako da
nigar egitea
Jainkoak nahi badu
Ni urez juaitia
Ama zertarako da
nigar egitea

amak, tichte ihardesten dio
Ama Sokorrikoak
begira zaitzala
osorik itzu ziten
gaur zaren bezala

Agur nere semea
zoaz zure bidera
noizbeit orhoit nagola
ni zure begira

ama sartzen da, Bartolo egoiten iztant bat toki berean,
begiak lurrerat so, gero partitzerat doa .
Ordu berean ezkerretik aurkitzen da MARITCHU

Mar

Bagoazi

?

Bartolo harrিতua ez dio arraposturik emaiten
Itsasoari buruz doa kantatuz (airea Nik dabitut borthuetan ardiak)
Oi Maritchu egon zaite
itsasoari begira
ez othe dugu bihotzean
senditzen haren billura
aitak bezala gan behar dut
nahitez itsasora .

Mar

Itsasoal ura eta
nere bihotzak nigarra
horra nun naizen eskon gabe
alargun egon beharra

Nere bihotza zureturik
baitzoazi itsasora

Bar

Iduzkia gau alderat
urtzen ari den bezala
amodio zahar hura
nigarrek joan zaitzatela
ni ahantzirik ibil zaite
zorionaren bilha

Mar

Nik bihotza eman eta
ez dezaket har gehiago
zuk ni baino atsegina
duzu naski maiteago
itzuli arte, ilhun, kechu,
zure begira nago .

Bar

Øi barkatu badakizun
billura batek nerama
bihotz ona duzu baino
nere begira ez thema
kotsola zaite eta othoi
ez ahantz nere ama .

Maritchu ezkererat itzulia gordetzen ditu bere nigarrak,
Bartolok itsasoari so egiten du

kantariek emaiten dute(emeki gero ete finkiago)

Goizeko izarra guziz argia
mantcharik gabe ikusten da
etc..

VBartolo kantatzen ditu kantu horren azken hitzak
kantariez segitua gochoki .
Boina jalirik besoa hedatzen du eta johan kanporat
ezkerreko aldetik Maritchuri behatuz .

Bar

Bethiko agur, bethiko agur .

Bela erorzearekin kantariak emaiten dute

Boga boga marinela
etc.....